

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

1837

AGINDUA, 2014ko martxoaren 26koa, Osasuneko sailburuarena, zeinen bidez ezartzen baita anbulantziak gidatzeko zereginean habilitatzeko esperientzia profesionala akreditatzeko prozedura.

836/2012 Errege Dekretuak errepideko garraio-zerbitzu sanitarioko ibilgailuen ezaugarri teknikoak, ekipamendu teknikoak eta pertsonalaren dotazioa ezartzen ditu (836/2012 ED, maiatzaren 25ekoa, errepideko garraio sanitarioko ibilgailuen ezaugarri teknikoak, ekipamendu teknikoak eta pertsonalaren dotazioa ezartzen dituena). Dekretu horren 4. artikuluan, pertsonalaren dotazioari buruzkoan, ezartzen du arabera beharrezko pertsonak eta eskatutako titulazioa zein diren anbulantzia-moten. Honela, A1 eta A2 motako anbulantzia ez-asistentzialek gidari bat izan beharko dute bederen, maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuan aurreikusitako garraio sanitarioko profesionaltasun-egiaztagiria gutxienez duena, eta, zerbitzu-motak hala eskatzen duenean, kualifikazio bera duen eta laguntzaile diharduen beste bat. B motako anbulantzia asistentzialek gidari bat izan beharko dute bederen, urriaren 29ko 1397/2007 Errege Dekretuan xedatutako larrialdi sanitarioetako teknikariaren lanbide-heziketako titulua duena, gutxienez, edo horri dagokion atzerriko titulu homologatua eta aitortua, eta laguntzaile diharduen beste bat, titulazio bera duena, gutxienez. C motako anbulantzia asistentzialek gidari bat izan beharko dute bederen, lehen aipatu larrialdi sanitarioetako teknikariaren lanbide-heziketako titulua duena, gutxienez, edo horri dagokion atzerriko titulu homologatua eta aitortua, eta erizain bat, Erizaintzako diplomadunaren unibertsitate-titulua edo erizaintzako lanbide-arautuan jarduteko habilitatzen duen gradu-titulua duena, edo horri dagokion atzerriko titulu homologatua eta aitortua. Halaber, eman beharreko laguntzak hala eskatzen duenean, mediku bat izan beharko da, Medikuntzako lizentziadunaren unibertsitate-titulua edo mediku jarduteko habilitatzen duen lanbide-arautuko gradu-titulua duena, edo horri dagokion atzerriko titulu homologatua eta aitortua.

Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorraren 1. eta 2. ataletan, pertsonala prestakuntza eskakizun berrietara egokitzeko prozesua arautzen da. Lanpostu hutsen eta plaza sortu berrien kasuan, 836/2012 Errege Dekretua indarrean sartzen denetik aurrera, garraio sanitarioko enpresetan sartu berri diren gidariek eta laguntzaileek garraio sanitarioko profesionaltasunaren egiaztagiria izan beharko dute, edo larrialdi sanitarioetako teknikariaren titulua, aipatu errege dekretuaren 4. artikuluan xedatutako baldintzetan.

Gainera, esperientzia izanik ere, 4. artikuluan eskatzen den prestakuntza ez duten profesionalak habilitatzea aurreikusten da. Honela, A1 eta A2 motako anbulantzia ez-asistentzialetako gidari gisa habilitatuko dira errege-dekretu hau indarrean sartu zenetik azken sei urteetan anbulantziak gidatzen hiru urte baino gehiagoko lan-esperientzia era frogagarrian egiaztatzen duten pertsonak. Bestalde, B eta C motako anbulantzia asistentzialetako gidari gisa habilitatuko dira errege-dekretu hau indarrean sartu zenetik azken zortzi urteetan anbulantzia asistentzialak gidatzen bost urte baino gehiagoko lan-esperientzia era frogagarrian egiaztatzen duten gidariak.

Errepideko garraio sanitarioaren arloan Lurreko garraioen antolamenduari buruzko Legea garatzen duen uztailaren 23ko PRE/1435/2013 Aginduaren 39.2 artikuluan ezartzen duenez, aintzat hartuko da maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuan aipatzen den lan-esperientzia, hau da, hiru edo bost urte baino gehiagokoa, arau hori indarrean sartu baino ondo-ondoko sei edo zortzi urte lehenago eskuratua, hurrenez hurren, bai gidari gisa betetako lanpostuan eskura-

tua, bai laguntzaile gisa betetako lanpostuan eskuratua. Esperientzia horrek, egiaztatu eta gero, era bereran balioko du gidari-lanak edo gidariaren laguntzaile-lanak egiteko.

Gainera, uztailaren 23ko PRE/1435/2013 Aginduaren bigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan ezartzen duenez, maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatutakora doitu da Espainiako Gurutze Gorrian eta lehenengo atalean aipatzen diren ongintzako erakundeetan garraio sanitarioko zerbitzuak ematen dituzten langile boluntarioak errege-dekretu horretan ezarritako prestakuntza-eskakizunetara egokitzeko prozesua.

Esperientzia 1224/2009 Errege Dekretuaren 12.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera justifikatuko da (1224/2009 ED, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez eskuratutako lan-eskumenak aitortzekoa), eskatzaileak boluntario-zerbitzuak eman ditueneko erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez; hor, berariaz agertu beharko da zer jarduera egin duen, zein urtetan eta zenbat ordu eskaini dizkien zerbitzu horiei.

Atal honetan aurreikusitako habilitazio-kasuak egiaztatzen dituzten ziurtagiri indibidualak autonomia erkidego bakoitzak emango ditu, bakoitzari dagokion prozeduren esparruan, eta aipatu errege dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean aipatutako xedapenen bidez arau-tako prozedurari atxikirik izango dituzte eraginak.

Aurreko xedapenetan ezarritakoa betetzeko eta pertsonala prestakuntza-eskakizun berrietara egokitzea osatzeko,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Helburua eta aplikazio-eremua.

1.– Agindu honen xedea da maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren aplikazio eremuan barne hartutako pertsonak, egun lanean dihardutenak edo haien lanbidean azken aldiz Euskal Autonomia Erkidegoan jardun izan direnak, errepedeko garraio sanitarioko ibilgailuen gidari gisa habilitatzeko prozedura ezartzea eta horren deialdia egitea.

2.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute errepedeko garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gidaritza-lanetan edo gidariaren laguntzaile-lanetan esperientzia duten pertsonak, gero zehazten diren baldintzetan, eta eskakizun hauek betetzen badituzte, betiere:

a) A1 eta A2 motako anbulantzia ez-asistentzialentzat: hiru urteko lan-esperientzia errepedeko garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gidari-lanetan edo gidari-laguntzaile jardunean, 2006ko ekainaren 10etik 2012ko ekainaren 9ra bitartean.

b) B eta C motako anbulantzia asistentzialentzat: bost urteko lan-esperientzia errepedeko garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gidaritza-lanetan edo gidari-laguntzaile jardunean, 2004ko ekainaren 10etik 2012ko ekainaren 9ra bitartean.

3.– Kasu batean zein bestean, lan-esperientzia hori era frogagarrian egiaztatu beharko da, Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorraren ziurtagiriaren eta eskatzaileak zerbitzua eman duen erakundearen legezko ordezkariak emandako ziurtagiriaren bidez, zeinetan argi jaso beharko da aurretik adierazitako ezaugarriak dituen anbulantzia batean gidari gisa lan egin izana.

Espainiako Gurutze Gorrian eta ongintzako erakundeetan (zeinen jarduera nagusia asistentzia sanitarioa ematea baita, oro har helburu humanitario eta sozialarekin) zerbitzua ematen duten langile boluntarioen kasuan, esperientzia 1224/2009 Errege Dekretuaren 12.1.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera justifikatuko da (1224/2009 ED, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bidez

eskuratutako lan-eskumenak aitortzekoa) eskatzaileak boluntario-zerbitzua eman dueneko erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez; bertan, berariaz agertu beharko da zer jarduera egin duen, zein urtetan eta orotara zenbat ordu eskaini dizkien jarduera horiei.

2. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Aurreko artikuluan mugatutako esparruan sartzen diren pertsonak errepideko garraio sanitarioko zerbitzuak emateko ibilgailuen gidari izateko habilitazioa eskuratu nahi badute, agindu honen eranskin gisa argitaratzen den ereduaren arabera eskabidea aurkeztu beharko dute Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, sail horretako lurralde-ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan xedatutako tokietako batean.

a) Eskabide-eredua.– Habilitatzeko prozedura agindu honen eranskin gisa argitaratzen den ereduaren arabera eskabidea aurkeztuz hasiko da.

b) Eskabideak aurkeztea.– Eskabideak Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari bideratuko zaizkio, eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean, sail horretako lurralde-ordezkaritzetan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan xedatutako tokietako batean aurkeztuko dira.

Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Olagibel 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

Tel: 945 01 71 00.

Faxa: 945 01 71 01.

Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Antso Jakituna 35.

20010 Donostia.

Tel. 943 02 30 00.

Faxa 943 02 39 30.

Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

Errekalde zumardia 39.

48008 Bilbao.

Tel. 94 403 17 00.

Faxa 94 403 17 83.

c) Eskabideak aurkezteko epea.– Eskabideak aurkezteko, hilabeteko epea izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

3. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidearekin batera, Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorrak emandako lan-bizitzaren txostena aurkeztu beharko da, maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren 2. puntuaren aurreikusitako denboraldietan izandako lan-jarduerari dagokiona.

2.– Halaber, egindako lanen ziurtagiria erantsiko da, eskatzaileak lan-zerbitzuak eman ditueneko erakundearen legezko ordezkariek emandakoa. Bertan, argi jasoko da anbulantzietako gidari-lanak edo gidariaren laguntzaile-lanak egin izana, eta, aurretik aipatu errege-dekretuaren

2. artikuluan xedatutako sailkapenaren arabera, errepideko garraio sanitarioko ibilgailu-mota ere adieraziko da. Anbulantzia asistentzialetan zein ez-asistentzialetan, bietan eman bada zerbitzua, eta anbulantzia-mota bakoitzean zenbat denbora lan egin den zehazten ez bada, anbulantzia ez-asistentzialetan egindako lan-denboratzat hartuko da.

3.– Espainiako Gurutze Gorrian eta ongintzako erakundeetan (zeinen jarduera nagusia asistentzia sanitarioa ematea baita, oro har helburu humanitario eta sozialarekin) zerbitzua ematen duten langile boluntarioen kasuan, eskatzaileak boluntario-zerbitzua eman dueneko erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez justifikatuko da esperientzia; bertan, berariaz agertu beharko da zer jarduera egin duen, zein urtetan eta orotara zenbat ordu eskaini dizkien jarduera horiei.

4.– NANaren edo AIZren kopia.

5.– Agiri originalak edo fede-emaila publikoak kautotutako kopiak aurkeztu ahal izango dira, eta baita eskabideak jasotzeko ardura duten funtzionarioek, agiri originala aurkeztu eta gero, konpultsatutako kopiak ere.

4. artikulua.– Izapidetzea eta ebazpena.

1.– Balorazio batzorde bat izendatuko da, eta hauek osatuko dute: Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak, batzordearen buru izango dena; Osasun Saileko Irakaskuntza eta Lanbide Garapeneko Burutzak; Osasun Saileko Osasun Antolamendu eta Egiatzeneko Zerbitzuko Burutzak; Osakidetzako Larrialdietako Zuzendaritzako ordezkari batek; Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzako teknikari batek, eta Osasun Saileko Irakaskuntza eta Lanbide Garapen Zerbitzuko teknikari batek, idazkari jardungo duena.

Osasun Sailak beharrezko neurriak hartuko ditu emakume eta gizonezkoen ordezkaritza orekatua izan dadin batzordean, eta, horretarako, kide anitzeko organoa osatzen duten kide guztietatik, sexu bakoitzeko % 40ko ordezkaritza gutxienez izan dadila ahaleginduko da.

2.– Eskabideren batek ez baditu eskakizun guztiak biltzen, edo eskabidearekin batera ez badira adierazitako agiriak aurkezten, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio huts egitea konpontzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea ukatutzat joko dela adieraziko zaio, eta, besterik gabe, artxibatu egingo da.

3.– Ebaluazio-batzordeak, akreditazio-eskaerak aztertu eta ebaluatu ostean, osasun-prestatuntza espezializatuan eskumena duen Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzari igorriko dio ebazpen-proposamena, hark, berariazko ebazpen arrazoituz, akreditazio-eskaerak onar edo uka ditzan.

4.– Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariak ebatziko ditu aurkeztutako eskabide guztiak, eta hiru atal hauetako batean sartuko ditu:

a) 2006ko ekainaren 9tik 2012ko ekainaren 9ra bitartean, hiru urtez anbulantzietako gidari-lanak egin dituzten eta hori era frogagarrian egiaztatu duten eskatzaileentzako habilitazioa (A1 eta A2 motako anbulantzia ez-asistentzialetako gidari).

b) 2004ko ekainaren 10etik 2012ko ekainaren 9ra bitartean, bost urtez anbulantzia asistentzialetako gidari-lanak egin dituzten eta hori era frogagarrian egiaztatu duten eskatzaileentzako habilitazioa (B eta C motako anbulantzia asistentzialetako gidari).

c) Lanbide habilitazioa ukatzea lehenago aipatutako datetan lanbidean jardun ez duten eskatzaileei edo lanean jardun izana agindu honen 3. artikuluan eskatzen diren agirien bidez egiazta ezin dezaketenei.

5.– Prozedura ebazteko, sei hilabete izango dira, gehienez, eskabidea eskumena duen organoaren erregistroan sartzen denetik aurrera. Epe horren zenbaketa eten egingo da, interesdunek eskabideetan dauden hutsak zuzentzeko eta eskabide horiek hobetzeko behar duten denboran. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik ematen eta jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsizat joko da.

6.– Habilitazio hori eman eta ukatzen den, banan-banan jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari, Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpena argitaratzearen zain egon gabe. Gorago adierazitako habilitatzeko prozedura amaitu eta gero, Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendariaren ebazpen bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, habilitatutako pertsonen zerrendarekin. Ebazpen honen aurka, errekurtsio arrunta aurkez dakioke Osasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunetik hasita.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honen bidez herritarrek Herri Administrazioarekiko harremana, ahoz eta/edo idatziz, euskaraz zein gaztelaniaz izateko duten eskubidea bermatuko da, baita arreta hizkuntza berean jasotzekoa ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan aurrez zehaztu ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa beteko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean emandako idazkera aintzat hartuta, betiere.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 26a.

Osasuneko sailburua,
JON DARPÓN SIERRA.

2014ko apirilaren 22a, asteartea

 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO OSASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SALUD		ANBULANTZIAK GIDATZEKO HABILITAZIO-ESKAERA SOLICITUD DE HABILITACIÓN PARA CONDUCCION DE AMBULANCIAS	
A ESKAITZALEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE			
ABIZENAK / APELLIDOS		IZENA / NOMBRE	NAN / DNI
HELBIDEA / DIRECCIÓN			PK / CP
HERRIA / LOCALIDAD		LURRALDEA / TERRITORIO	TELEFONOA / TELEFONO
POSTA ELEKTRONIKOA / CORREO ELECTRONICO			
LAN- ESPERIENTZIA / EXPERIENCIA LABORAL			
<input type="checkbox"/>	3 urte baino gehiagoko esperientzia anbulantzia ez-asistentzialetako gidari edo gidari-laguntzaile gisa, 2006ko ekainaren 9tik 2012ko ekainaren 9ra bitartean (A1 eta A2 motak). Más de 3 años de experiencia entre el 10 de junio de 2006 y el 9 de junio de 2012 como conductor o ayudante de conductor en ambulancias no asistenciales (clases A1 y A2).		<input type="checkbox"/>
			5 urte baino gehiagoko lan-esperientzia anbulantzia asistentzialetako gidari edo gidari-laguntzaile gisa, 2004ko ekainaren 10etik 2012ko ekainaren 9ra bitartean (B eta C motak). Más de 5 años de experiencia laboral entre el 10 de junio de 2004 y el 9 de junio de 2012 como conductor o ayudante de conductor en ambulancias asistenciales (clases B o C).
B ESKABIDE EREDUA: / TIPO DE SOLICITUD			
Anbulantziak gidatzeko habilitazioa Habilitación para conducción de ambulancia		<input type="checkbox"/>	Ez-asistentziala No asistencial
		<input type="checkbox"/>	Asistentziala Asistencial

2014ko apirilaren 22a, asteartea

C	AURKEZTUTAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN APORTADA
<input type="checkbox"/>	<i>Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorrak emandako lan-bizitzaren txostena</i> Informe de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social
<input type="checkbox"/>	<i>Euskal Autonomia Erkidegoan baimendutako garraio sanitariooko enpresaren egiaztagiria, denbora eta lana burutzeko erabili den anbulantzia-mota zehaztuz</i> Certificado de empresa de transporte sanitario autorizado en la Comunidad Autónoma del País Vasco, especificando tiempo y clase de ambulancia en la que ha desempeñado el trabajo,
<input type="checkbox"/>	<i>Eskatzaileak borondatezko zerbitzua eman dueneko erakundearen ziurtagiria</i> Certificado de la organización en la que haya prestado su servicio voluntario
<input type="checkbox"/>	<i>NANaren kopia</i> Copia del DNI
<p><i>Behan sinatzen duenak eskatzen du onartua izatea Osasuneko sailburuaren 2014/03/26ko Aginduaren bidez iragarritako prozeduran. Agindu horren bidez ezartzen dira maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorren 1. eta 2. ataletan xedatutakoa aplikatu, kontrolatu eta garatzeko beharrezko neurriak (836/2012 ED, garraio-ibilgailuen ezaugarri teknikoak, ekipamendu teknikoak eta pertsonalaren dotazioa ezartzen dituenak). Horretarako, datu hauek eta dagozkien agiriak aurkezten ditu.</i></p> <p>El/La abajo firmante solicita ser aceptado en el procedimiento convocado por Orden del Consejero de Salud de 26/03/2014 por la que se establecen las medidas necesarias para la aplicación, control y desarrollo de lo previsto en los apartados 1 y 2 de la Disposición transitoria segunda del Real Decreto 836/2012, de 25 de mayo, por el que se establecen las características técnicas, el equipamiento sanitario y la dotación de personal de los vehículos de transportes, para lo cual aporta los siguientes datos y la documentación correspondiente.</p>	

_____, ____ ko ____ ren ____ a

Signadura / Firma: _____

Datu pertsonalen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 LOren 5. artikuluan xedatutakoa betez, jakinarazten zaizu zuk aurkeztutako datuak "Irakaskuntza eta garapen profesionala" izeneko datu pertsonalen fitxategian sartuko direla, zeinen helburua baita Osasun Sailak iragarritako irakaskuntzarako eta garapen profesionalerako laguntza-eskabideak kudeatzea eta laguntza horien jarraipena egitea. Etengabeko prestakuntzaren akreditazioa. Prestakuntza espezializatuaren kudeaketa (egoiliarren inkesta, zentroyen akreditazioa, irakaskuntza-unitateak, tutoreak, zentroyen ikuskaritzak eta irakaskuntza-unitateak). Interes sanitarioaren azterketa. Osasunaren arloko lanbide-heziketako tituluen homologazioa. Osasunaren arloan lan egiteko habilitazioa. Jardueren kudeaketa, oro har. Aurkeztutako datuak Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasuneko Ministerioari eta osasunaren arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuei eman ahal izango zaizkie.

Fitxategia Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzaren ardurapean dago, eta, zuzendaritza horretan, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak erabil daitezke, honako helbide honetan: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 5 de la LO 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos que Vd. aporta serán incluidos en el fichero de datos de carácter personal denominado "Docencia y desarrollo profesional", cuya finalidad es la gestión de las solicitudes y seguimiento de las ayudas para docencia y desarrollo profesional convocadas por el Departamento de Salud. Acreditación de formación continuada. Gestión de la formación especializada (encuesta de residentes, acreditación de centros, unidades docentes, tutores, auditorías de centros y unidades docentes). Reconocimiento de interés sanitario. Homologación de títulos de formación profesional del ámbito sanitario. Habilitación para el ejercicio profesional en el ámbito sanitario. Gestión de actividades en general.. Los datos facilitados podrán cederse al Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad y a otros organismos públicos con competencia en materia sanitaria.

El fichero está bajo la responsabilidad de la Dirección de Planificación, Ordenación y Evaluación Sanitaria, pudiendo ejercitar ante la misma los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la siguiente dirección: C/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.